

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2014

Joan den maiatzaren 26an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren Kontuaren fiskalizazio txostena onartu du, 2014ko ekitaldikoa.

Txostenak ondorioztatu du EAEko Administrazio orokorrak zuzentasunez bete duela ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautu duen lege-araudia, nahiz akatsak azaleratu diren administrazioko kontratazioaren atalean: 2 obra-kontratutan 1,6 milioi euroren aldaketak finkatutako prozedura saihestuta gauzatu dira; 1,1 milioi euroren obra osagarriak publikotasunik gabeko prozedura negoziatua baliatuta esleitzea bideratu duten ustekabeko inguruabarrak ez dira egiaztatu; eta 1,5 milioi euroren erosketak kontratuaren xedea zatikatuta esleitu dira edo dagokion espedientea izapidetu gabe. Gainera, Jaurlaritzaren Kontseiluak guztira 27,1 milioi euroren gastuak baliokidetu ditu, ekonomia-kontrolerako bulegoak aurkako txostena jaulkia zuela, nagusiki publikotasun eta lehia-printzipioak ez betetzeagatik eta behin epea iraungia zela zerbitzu ematen jarraitzeagatik.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du, salbuespenik gabe.

Finantza egoerak bilakaera positiboa izan du 2014an. **Aurrezki gordinak** gora egin du, sarrerak gastuak baino handiagoak izan direlako, batik bat Foru Aldundien ekarpenak. Honela, bada, besteak beste, osasun eta hezkuntza gastuak gehitu dira (irakasleen ordezkapen gehiago, eskola-beka eta haur-eskola eta heziketa-laguntzarako diru-laguntza handiagoak). Inbertsioek ere gora egin dute, Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Saileko Teknologia programara emandakoak nagusiki. Ekitaldiko inbertsioa zorra baliatuta finantzatu da, emaitza positiboaren atal bat baliatzeaz gainera. Azkenik, bai Diruzaintza Geldikinak bai Diruzaintza Geldikin Erabilgarriak ere gora egin dute.

Txostenak dio EAEko Administrazio orokorrak bete dituela 2014an aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak; baita, merkataritzako eragiketetan ordainketa epeak ere (batez besteko ordainketa epea, 26 egunekoa, araudiak agintzen dituen gehieneko 30 egunen azpitik 4 egun). Gastu aruari dagokionez, Aurrekontuaren

Egonkortasun eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren 21. artikulua betez mamitutako Ekonomia-finantza Planak 2015 eta 2016an betetzea aurreikusten du.

Txostenak, aurreko ekitaldietan bezala, gastu eta sarrerak lurralde historikoen arabera bereizirik ematen ditu, izan ere, informazio hau ez da urteko kontuetan jasotzen. 2014an aitortutako gastu guztitik, lurraldeka bereiz daitezkeenetik (finantza gastuak, zor publikoa eta inbertsio ez-materialak kanpoan utzita), % 26 Arabari dagokio, % 46 Bizkaiari eta % 28 Gipuzkoari. Sarrerei dagokienez, berriz, (zor publikoari dagozkionak kenduta), % 16 Arabari dagokio, % 51 Bizkaiari eta % 33 Gipuzkoari. Ehuneko hauek bat datoz foru aldundi bakoitzak ekitaldian bildutako zerga-sarreraren ekarpen-ehunekoarekin.